

# XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 512

*EBAZPENA, 2025eko abenduaren 11koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen araudiaren aldaketa argitaratzeko dena.*

2019ko abuztuaren 6an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudi Erregulatzailerak, 2019ko uztailaren 12ko Gobernu Kontseiluan onartua.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen Araudia aldatzeko proposamena, unibertsitate-komunitateari kontsulta publikoa egin ondoren, Graduoko eta Graduondoko Batzordeetan aurkeztu da. Hori guztia, UPV/EHUren estatutuak onartzen dituen otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren arabera. Dekretu horren 88.b) eta 90.b) artikuluek Graduoko Batzordeari eta Graduondoko Batzordeari ematen diete, hurrenez hurren, Gobernu Kontseiluari ikasketen antolamenduari eta kudeaketari buruzko araudiak proposatzeko eskumena.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenaren eta Sinplifikazioaren Administrazio Batzordeak (COARD/EISBA) aldeko irizpena eman dio proposamenari, 2025eko azaroaren 27ko bilkuran.

Aipatutako guztiagatik, eta Estatutuen 177.1 d) artikuluan adierazitakoa betetzeko, ikusita Gradu eta Eraldaketa Digitalerako errektoreordeak eta Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzarako errektoreordeak proposatuta,

### EBATZI DUT:

Lehenengoa.— UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2025eko abenduaren 11n egindako bileran onartutako Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen Araudiaren aldaketa bidaltzea, argitara dadin, eranskinean jasotako moduan.

Bigarrena.— Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta, haren kontra, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da jurisdikzio ordena horretako epaitegietan bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita epe biak. Edozelan ere, ezingo dira jarri bi errekurtsuak aldi berean.

Leioa, 2025eko abenduaren 11.

Idazkari nagusia,  
LEIRE GARMENDIA ARRIETA.

## ERANSKINA

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN GOBERNU  
KONTSEILUAK 2019KO UZTAILAREN 12AN ONARTUTAKO IKASLEEN KANPOKO PRAKTIKA  
AKADEMIKOEN ARAUTEGIAREN ALDAKETA

## HITZAURREA

2019ko uztailaren 24an, UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegia argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gobernu Kontseiluak 2019ko uztailaren 12an onartua.

Praktikak ikasleen prestakuntza akademikoaren funtsezko zati dira, aukera ematen dielako ikasitakoa ingurune erreal batean aplikatzeko, trebetasun profesionalak garatzeko eta lan merkatuan errazago sartzeko. Horregatik, oso garrantzitsua da praktiken arautegia egokitzea hezkuntza eta lan munduaren premia eta aldaketetara.

UPV/EHUko ikasleez gain, gero eta gehiago dira praktikak gure unibertsitatean egin nahi dituzten kanpoko ikasleak (beste unibertsitate batzuetakoak edo beste hezkuntza maila batzuetakoak). Gaur egun, hitzarmen berriak izenpetzeko, Gobernu Kontseiluak edo dagokion Campuseko Batzarrak onartu behar ditu lehenik. Urrats hori asko luza daiteke denboran eta atzera botatzen ditu horrek kanpoko ikasleak.

Arautegiaren aldaketa honen helburua da, alde batetik, argi eta garbi zehaztea praktikak izapidetzen dituzten pertsonen edo egituren rola; bestetik, prozedura sinplifikatzea, bereziki kanpoko ikasleen kasuan, arinagoa eta eraginkorragoa izan dadin. Horri esker, praktiketarako bidea azkartu eta erraztuko zaie kanpoko ikasleei, eta UPV/EHUK harremanak estutuko ditu beste unibertsitate batzuekin edo beste hezkuntza maila batzuetako erakundeekin.

1. artikulua.– UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiaren 21. artikulua b) letra aldatzea (Gobernu Kontseiluak 2019ko uztailaren 12an onartutako arautegia).

Aldatu egiten da UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiaren 21. artikulua b) letra. Honela geratzen da idatzita:

«b) Kanpoko praktika akademikoen programan parte hartzeko, antolakuntza unitatearen arduradunak baimen eskaera egin beharko du III. eranskina betez. Praktika ikastegi batean burutuko bada, baimena eskatu beharko zaio ikastegiko Zuzendaritzari edo Dekanotzari; eta, praktika Errektoreordetza batean burutuko bada, dagokion errektoreordeari eskatu behar zaio baimena. Gainera, praktika ikerketarako diruekin ordainduko bada, ikerketaren arloko eskumenak dituen Errektoreordetzari eskatu beharko zaio baimena».

2. artikulua.– UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiaren hirugarren xedapen gehigarria aldatzea (Gobernu Kontseiluak 2019ko uztailaren 12an onartutako arautegia).

Aldatu egiten da UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiaren hirugarren xedapen gehigarria. Honela geratzen da idatzita:

«Hirugarren xedapen gehigarria.– Unibertsitate honetan ikasten ari ez diren ikasleek (bertakoak nahiz atzeritarrak) UPV/EHUko egituretan praktikak egitea.

1.– Arautegi honen 9. artikuluan sartuta ez dauden beste unibertsitate batzuetako ikasleak kanpoko praktika akademikoak egitera UPV/EHUrak etortzen direnean, ez zaie arautegi hau aplikatuko; dena dela, bi unibertsitateek sinatu beharreko hitzarmenak unibertsitate ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuak eskatutako gutxieneko edukira egokitu beharko du, eta horretan xedatutakoa bete.

2.– Ikasle ez-unibertsitarioen kasuan, unibertsitateko antolakuntza unitatearen praktikak arautzeko aintzat hartuko dira unitatearen araudi propioa eta unibertsitateko gainerako araudi aplikagarria.

3.– Nolanahi ere, praktikak egiteko, hitzarmen bat sinatu beharko dute lehenik UPV/EHUK eta ikaslearen jatorri erakundeak.

Praktikak egingo diren antolakuntza unitatearen arduradun nagusiak hasi eta bultzatuko du hitzarmena izapidetzeko prozedura, eta hari egokituko zaio ere ikasleen jatorri ikastegiarekin harremanetan jartzea, hitzarmenaren zirriborroa idaztea eta hitzarmenaren edukiak aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzea. Gainera, bere gain hartuko du ere hitzarmena kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko zeregina.

Hitzarmena izapidetzean, praktikak egingo diren antolakuntza unitatearen arduradunak dagokion txostena eskatuko die praktikaren eraginpean egon daitezkeen UPV/EHUKo beste egiturei.

Antolakuntza unitatearen arduradunak ziurtatu egingo du praktikak egiten dituen ikasleak istripu eta gaixotasun aseguruia, eta erantzukizun zibileko aseguruia izatearen ardura. Ikasle atzerritarrek, gainera, garraio- eta aberriratze-aseguru bat izan beharko dute istripua izanez gero, IBILI aseguruaren antzekoa, atzerriko poliza modalitatean.

4.– Praktikak egingo diren antolakuntza unitatearen gaineratik dagoen errektoreordeak sinatuko du hitzarmena, edo, praktikak ikastegi batean egingo badira, haren dekanotzak edo zuzendaritzak.

Nolanahi ere, egoki izanez gero, errektoreak sinatu ahal izango ditu beti aurreko ataletan aipatutako hitzarmenak.

Hitzarmena sinatu ondoren, praktikak egingo diren antolakuntza unitatearen arduradunak hitzarmenaren kopia bidaliko du Idazkaritza Nagusiaren Hitzarmenen Erregistrora, eta dagokion Campuseko Errektoreordetzako Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzaren bidez kudeatuko du UPV/EHUKen identifikazio txartela egitea.

5.– Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendu Erregelamenduaren 25 f) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, xedapen gehigarri honetan aipatutako hitzarmenak araudi espezifikoaren mende daudela ulertuko da.

6.– Xedapen honetan aipatzen diren praktikak izapidetzen dituzten antolakuntza unitateek, praktika eskaera guztiei erantzun ezin bazaie, UPV/EHUKo ikasleek lehentasuna izateko irizpideak ezarriko dituzte.

7.– Justifikatutako salbuespenetan izan ezik (Gerentziaren baimena izan beharko dute), UPV/EHUK ez die laguntza poltsarik ordainduko praktikak unibertsitate honetan egiten dituzten kanpoko ikasleei, eta ikaslearen jatorri ikastegiaren ardura izango da Gizarte Segurantzaren afiliazioa kudeatzea. Zirkunstantzia hori berariaz jaso beharko da dagokion hitzarmenean.»

3. artikulua.– UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiaren III. eranskina aldatzea (Gobernu Kontseiluak 2019ko uztailaren 12an onartutako arautegia).

Aldatu egiten da UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiaren III. eranskinaren azken paragrafoa. Honela geratzen da idatzita:

«.....andre/jaunak,.....  
.....ko dekanoa, zuzendaria, errektoreordea BAIMENA ematen diot.....Antolakuntza Unitateari eskaera honetan agertzen den Hezkuntzarako Lankidetzaren Programa garatzeko.

Ikerketaren arloan eskumenak dituen Errektoreordetzaren baimena (praktika ikerketarako diruekin ordainduko bada):.....

.....(e)n, 20.....(e)ko.....(a)ren..... (e)(a)n.

(Sinadura eta zigilua)»